


IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA G. 24 Aiako Harria



Aiako Harrien profil bereziak Pirinioetako Mendikatearen amaiera markatzen du. Gailurretatik paisaia ikusgarri eta anizkuna miretsi ahal izango dugu: Jaizkibel, Hondarribia, Bidasoako padurak, Txingudi, Hendaia, etab. Euskal Herriko lur zaharretan gaude; izan ere, geologiaren aldetik bereziak dira gure Erkidegoko mendigune granitiko bakarra delako. Jatorri bolkanikoko haitz-masa horren barruan metal desberdinetako zainak sortu ziren; haiek ustiatuak izan dira erromatarren

garaitik gaur arte, eta horren aztarna ugari ditugu: trenbideak, galeriak eta eraikuntzak. Higadura-prozesuek forma desberdinetako espazio bat konfiguratu dute, aldapa arrokatsu gogorrekin, baso naturalekin eta larre-eremu leunekin. Enklabe horretako fauna basokoa da batez ere, baina badira ur-inguruneei loturikoak ere: besteak beste izokina, igaraba edo arriskuan dagoen bisoi europarra, parkeko erretan eta erreka ugarietan aterpea aurkitzen dutenak.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala (1995) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Geografia: lurraldeen mugak, Pirinioak, Kantauri Itsasoa, Iparraldea eta Hegoaldea...
- Aiako Harria hesi bioklimatiko gisa: klimaren, landarediaren eta giza jardueren gaineko eragina.
- Historia geologikoa: batolitoaren kontzeptua, haitz metamorfikoak.
- Aiako Harria migrazio-korridore gisa, uso-pasea.
- Arriskuan dagoen fauna suspertzea: izokina berriz sartzia.
- Parkeko abeltzaintza-ustiapenak.
- Historiaurreko Euskal Herria: hileta-erritoak neolitikoan. Monumentu megalitikoak.
- Inguruko erabilera tradizionalak: ikazkintza, gaztainondoaren landaketa, elurtegiak.
- Arditurri: meatzeen historia eta paisaia; aztarnak: mea-zuloak, galeriak, meatze-ahoak, etab. Arditurriko eta Irungo meatze-trenbidea.
- Historia: Aiako Harria leku estrategiko gisa. Inguruko gerren testigantzak.
- Aiako Harria eta bere ingurunea: populazio handiko eskualde baten aisialdi-eremua.
- Urmaelak: azpiegitura hidrauliko eta hidroelektrikoak, uraren erabilerak eta kontsumo arduratsua.